


Ez ahantz behar  
dela ikasi  
gauza batzuen  
ahantzten ■  
(Nietzsche)



# HERRI-URRATS Senperen

## AZKAR ETA ZABAL DADILA IKASTOLEN SAREA!

Aroa ere errotik alde, xarmanki joan da **Herri-Urrats**, usaian bezala Senpereko aintziraren inguruan muntatua Iparraldeko ikastolen sustenguz. Laguntzea gatik bereziki **Ziburukoa**, ixtorio frango izanik lekuz aldatu behar dena, hortarako behar den lurra eresia Mariñela auzoaldean. Gogoan ere betiko behar-orduak, ez direnak tipituz johan, bai eta irailean hiru herritan sortuko diren ikastola berriak, **Azkaraten, Basusarrin eta Biriatur**. Goizetik arats, izan da mugimendu gaitza. Ikaragarriko airostasuna, dena kantu, bertsu, dantza eta musika! Zernahi ausagailu eta joko haur eta gaztetxoentzat, horrek ere aintz munta baitu segur holako besta batean! Bestalde, etzen jateko eta edateko eskasik. Eta bestalde oraino, kulturak ere bazaukan bere tokia, liburu eta diska frangorekin. Hitz batez erraiteko, besta arraroa, zinez herrikoia! Zonbat hitzordu desberdin eta denak arrakastatsuak! Zonbat jende -nehork ezin egin kondaketa xuxenik - eta denak omore onean!



Hautetsien bilkuran,  
Pierre-Marie Nousbaum-en ongi etorria



Kalakan taldeko  
hiru kantari jeinutsuak




Mirenxu, Pantxix eta Marie, bazterrak gogotik airosten ari

### Beti aitzina!

Hautetsi eta kargudunentzat muntatu bilkuran azpimarratua izan da segur iragan urtea frango zaila izan dela Seaskarentzat, Ziburuko Kaxkarotenea ikastolaren kasuan izan diren eztabada eta buruhauste horiekin, baina oro har solas baikorrak entzun dira gehienik. Deneri, **Pierre-Marie Nousbaum** Senpereko auzapezak ongi etorri goxoa egin diote. Entzule hor zituen besteak beste hiru deputatu, bi zenatur eta auzapez andana pollita, besteak beste Baiona, Miarritze

eta Donibane Lohizunekoak. Ikastola guzien federakundearen izenean, **Koldo Tellitu**-k agur berezi bat egin diote Ziburuko ikastolako ikasle, erakasle, buraso eta laguntzaile guzietan, eremaki duten saila guziz eredugarria dela azpimarratuz. «Iparraldean, ikastolek bide onetik segitzen dute» erran du bestalde, hiru gehiago sortuko-eta lau hilabeteren buruko. **Pierre Barrière** akademiako ikuskariak segurtatu du gobernuak nahi dituela funtsez lagundu mintzaira guttitiuak eta beraz ikastolak. 31 ikastola orotarar, 34 izanen denbora guti

barne, 3300 ikasle baino gehiagorekin. Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean, **Martin Garitano**-k goretsi du Ziburuko ikastola eta oroitarazi Seaskak Iparraldean egiten duen lana guziz baliosa dela. **Jean-Jacques Lasserre** departamendu-buruaren ustez aitzinamendu estimagarriak izan dira azken urte horietan baina ez da hortan gelditu behar, ur baten bestalderat joateko ere ez baita ibiaren erdian egon behar...



## HERRI-URRATS Senperen

### AZKAR ETA ZABAL DADILA IKASTOLEN SAREA!

(1. hasia)



Dantza eta dantza aintzira bazterrean



Hauk nextatxa dantzari bereziak!

Euskal-gobernuak beti lagundu duela Seaska eta aitzina lagunduko duela, hori du argi eta garbi finkatu **Patxi Baztarrika**-k, euskararen alde sail premiatsua delakotz, gure mintzaira gero eta gehiagok menpera dezaten eta erabil ere egun guzietako harat-hunatetan. Jaz jadanik aski gora erran zena berriz bere gain hartu du, Frantzian behar litakeela lege bat ikastolak moldez babestuak izateko eta Frantziak behar lukeela ere onespen osoa eman Europa-mailan bozkatu mintzaira

guttituen karta delakoari. «Ikastolen sarea azkar eta zabal dadila», hori izan da ere **Frantxua Maitia**-k zabaldu duen deia, Euskararen Erakunde Publikoaren buru bezala. Beti aitzinerat egin behar baita, akulatu behar diren aitzinamendu premiatsuetan sartu du bixtan da **Miarritzen** eraikitzekoa den lizeo berria.

#### Saristatuak

Azkenik mintzatu da **Paxkal Indo** Seaskako burulehena.

iragan urteko gora-beherak aipatu ditu eta bereziki Ziburuko ikastolaren ixtorio hori. Erran du erabaki batzu zailak izan direla hartzeko, hala nola ikastola berri batentzat lurra behar zen erosi ala ez. Gaitzetsi du ere babespen lege baten eskasa, lege manerako baten eskasean ikastolak noiz nahi ekaitz baten mehatxupean izaiten ahal-eta. Bururatzeko, bost lagun saristatuak izan dira, bakoitxak opari

pollit bat eskuratzen zuela: **-Christine Bessonart** Senpereko auzapez ohia, luzaz ainitz bermatu dena ikastolen alde eta Herri-Urrats-entzat.

**-Dominique Idiart**, hau ere senperarra, ainitz urtez gaitzeko xinaurri-lana egin duena ikastolak laguntzea gatik.

-Hiru erakasle, hoinbeste urtez arizanak lan eta lan, **Miel Rodriguez, Jacky Elkano** eta **Odette Harlouchet**.

Bilkura argia zinez, besta guzieren idurikoa... **J-B D**



Los Seuvetons biarnes taldeak ere ukan du behazale



Jendalde handia kontzertuak gozaten

Denek elkarrekin badugu zer egin

Zu ere akziodun bilaka zaitetz!

[www.sokoa.com](http://www.sokoa.com)